

Balio proposamena

Etiket enpresa tresna-kutxa adimendunak egitera bideratu da batez ere. Kutxa horiek pantaila bat dute, eta bertan ikus daiteke tresna bakoitzaren egoera, ea norbaitek hartu duen, hartu duen pertsonaren izena eta zein ordutan atera den kutxatik. Pasahitz bidez baino ezin da ireki, eta kutxa erabiliko duen pertsona bakoitzak berea izango du. Horrela, tresnen segurtasuna eta iraunkortasuna ziurtatuko dira. Horri esker, mekanizazio-enpresa askok edo beste pertsona batzuek tresnak biltzerakoan edo aurkitzerakoan izaten dituzten arazoa konpon daiteke, eta lapurketak eta bestelako segurtasun-mekanismoak saihesten dira. Gure tresna-kutxez gain, segurtasun-mekanismo hori beste elementu eta instalazio batzuetan ezartzeko aukera ere eskaintzen dugu, eraginkortasuna eta segurtasuna hobetzeko.

Ezaugarriak:

Kutxa hori tresna bakoitzerako presentzia-sentsoreekin integratuta dago, beraz, baten bat falta den edo denak dauden jakin ahal izango du. Horrez gain, pasahitzen bidez funtzionatzen duen erregistro bat ere badu, langile bakoitzak bere pasahitza izango baitu. Kutxak jakin dezake nork eta zer ordutan hartu duen tresna.

Nola sortu da?

Proiektu hau egitea pentsatu genuen, lantegian beti izaten genituelako arazoak tresnak aurkitzeko. Batzuetan beste norbaitek izaten zituen, baina beste batzuetan inork ez zekien non zegoen eta langileen artean giro txarra sortzen zen, horrez gain, lanerako denbora asko galtzen genuen tresnen bila.

Beraz, hori nola hobetu pentsatzen hasi ginen, eta ideia zoragarri hau bururatu zitzaigun.